


EUSKAL AEko INDUSTRIA PREZIOEN INDIZEA (IPRI), 2014KO MARTXOA

Euskal AEko industria-prezioek % 0,2 egin zuten behera 2014ko martxoan, aurreko hilabetearekin konparatuta

lazko datuekin konparatuta (2014ko martxoa eta 2013ko martxoa), % 1,6 egin dute behera

2014ko martxoan, Euskal AEko industria-prezioak % 0,2 beheititu dira, aurreko hilabetekoekin alderatzen baditugu. Horixe adierazten dute EUSTATEko datuek. Hala, martxoko urtetik urterako tasa (azken hamabi hilabeteotako industria-prezioen aldakuntza jasotzen duena) % 1,6 jaitsi da.

Euskal AEko industria prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Sektorekako xehetasunak aztertuta, argi dago 2014ko martxoko jarduera-adar inflazionistenak, aurreko hilabetearekin konparatuta, *Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa* eta *Erauzteko industriak* izan direla, batean zein bestean, prezioak % 0,6 igo baitira. Inflazionistetan hirugarrena *Makineriaren eta ekipoen fabrikazioa* dugu, % 0,2 igo direnez. Aitzitik, jaitsierarik handienak *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* eta *Koketegiak eta petrolio-findegia* industria-sektoreek izan dituzte, bi-bietan % 0,9 egin baitute behera prezioek. Ondoren, *Altzariak eta beste manufaktura-industriak* batzuk sektorea dago, prezioak % 0,5 jaitsi direna.

2014ko martxotik 2013ko martxora bitarteko aldian, prezioen hazkunderik handienak alor hauetan gertatu dira: *Botikagintza* (% 1,5), *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 1,2) eta *Industria kimikoa* (% 0,6). Kontrara, jaitsierarik handienak honako hauei dagozkie: *Koketegiak eta petrolio-findegia* (% 6,8), *Altzariak eta beste manufaktura-industria batzuk* (% 2,6) eta *Material eta ekipo elektrikoek fabrikazioa* (% 2,4).

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari jarraiki, martxoan, sektore-talde handietako prezioak aldakuntza desberdinak izan dituzte. *Ekipo-ondasunak* % 0,2 igo dira, baina *Bitarteko ondasunak*, berriz, ez dira aldatu (% 0,0). *Energia* sektore-taldearen prezioak % 1,0 jaitsi dira eta *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 0,2; izan ere, *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* nahiz *Kontsumo-ondasun galkorrak* alorretako prezioek behera egin dute, % 0,2 eta % 0,1, hurrenez hurren.

Urtetik urterako aldian, ondasun-talde handi horietako prezioen aldakuntzek beheranzko joera izan dute kasu guztietan. *Energia* taldekoek % 4,1 egin dute behera, *Bitarteko Ondasunak* taldekoek % 1,8 eta *Ekipo-ondasunak* taldeko prezioek eta *Kontsumo Ondasunak* taldekoek % 0,4. Azken horien artean, *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* taldeko prezioak % 1,6 beheititu dira, eta *Kontsumo-ondasun galkorrak* taldekoenak ez dira aldatu (% 0,0).

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak. 2014ko martxoa (p)

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %		
		2014mar / 2014ots	2014mar / 2013mar	2014mar / 2013abe
INDIZE OROKORRA	108,9	-0,2	-1,6	-0,9
Sektore-banaketa				
Ateratze-industriak	95,1	0,6	-1,8	0,7
Manufaktura-industria	106,6	-0,1	-2,1	-0,5
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	127,1	-0,9	1,2	-3,2
Ondasunak, helburu ekonomikoka				
Kontsumo-ondasunak	105,1	-0,2	-0,4	-0,1
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	100,0	-0,2	-1,6	-1,2
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	106,8	-0,1	0,0	0,3
Ekipo-ondasunak	103,7	0,2	-0,4	-0,1
Bitarteko ondasunak	104,0	0,0	-1,8	-0,5
Energia	126,1	-1,0	-4,1	-2,6

Oinarria 2010=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Euskal AEko industria prezioen indizea (IPRI)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria Prezioen Indizeari (IPRI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industri Prezioen Indizearen (IPRI) gainera datu-bankua